



## **LAN HITZARMENeko 13. MAHAIAREN LABURPENA**

Atzo, asteartea, maiatzak 18, beste behin bildu zen Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziatio mahaia. Dagoeneko 13. da eta, aurrerapen xumeak izan badira ere erabakitzeke dauden gaien inguruan, 2013ko hitzarmenean sakontzeko aukera eman zezaketenak, ez dago akordiorik .

Ez da inolako urrats garrantzitsurik izan irakasleen zorrari dagokionez. Patronal erakunde eta sindikatu nagusien zerbitzu juridikoak bildu dira, baina arazo teknikoak daude lortu nahi den akordioak zorraren kitapena eta dagozkion kotizazioak berma ditzan, eta Patronalei administrazioaren aurka auzitan jarraitzeko aukera eman diezaien. Kristau Eskolak argi utzi zuen ezin izango dela kitatu 2010eko zorra datorren nominan, ekainekoan.

AZPren homologazioari eta, ondorioz, 2011ko urtarriletik sortutako zorrari dagokienez, BIM-a aurreko astelehenean, ekainak 17, bildu zen. Badirudi akordioa lortu dela zenbait lan-mailen ( gure sektorean ez daudenak baina bai publikoan) parekidetasunari dagokionez, baina atzerapenei buruz ez dago akordiorik. Patronalek nahi dute 2012ko zorra kalkulatzeko erreferentzia publikoan abenduko aparteko soldata kendu ondoren kobratutako diru-kopuruaren % 95 izatea eta ez 2011tik publikan indarrean dauden soldata taulak. Litekeena da datorren bileran desadostasunok behin betiko gainditzeko proposamenik izatea.

Lan hitzarmenaren negoziatioaren inguruan sindikatuek aurkeztu genituen lan hitzarmen berriak jaso beharko lituzkeen funtsezko puntuak. STEE-EILAS-ek ondorengo ditu funtsezkotzat:

- ✓ Hitzarmenaren ultraaktibitea mugagabekoa.
- ✓ Eremu funtzionalari dagokionez aldaketarik ez izatea defendatzen dugu
- ✓ Urteko irakasleen lanaldiaren portzentaje bat bertaratu gabekoak izatea, ordu osagarriak erregulatu daitezten, gutxieneko ordu kopurua norberaren lanerako gorde eta zaintza-ordua kopurua mugatu.
- ✓ Saihestu urteko lanaldiaren banaketa irregularra langile guztiontzat.
- ✓ Enplegua banatzeko formula berriak bideratu
- ✓ Aurreko urteetan galdutako erosteko ahalmena ordainsarrietan berreskuratzen hasi.

Patronalek hitzarmen zirriborroa aurkeztu zuten eta euren asmoak dira, besteak beste, sektorean lan-erreforma ezartzea eta ordainsariak finantziario publikoarekin lotzea. Arretaz aztertuko dugu

Datorren bilera ekainaren 28an izango da. Unean uneko informazioa ematen jarraituko dugu

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>